

- Martin... - Anek ere ez zekien nondik hasi.
- Faltan bota zaitut uda honetan, ez zaitut hondartzan ikusi. Eta begira iazko leku berean jarri naiz ia agertzen zinen baina... - Bat-batean pentsakor gelditu zen Martin, berriz ere lotsatuta, aurreneko egun horretan bezala.
- Ni ere askotan gogoratu naiz zurekin. Hilabetez Irlandan egon naiz ingelesa hobetzen eta abuztuan ez naiz askotan Joan Zarautzera. Baina Joan naizen guztietan zure begirada bilatzen aritu izan naiz jendetza artean.

Aneren zintzotasunarekin erabat gorritu zen Martin baina hori zen, hain justu ere, entzun nahi zuena: duela bi udako neska dotore horrek gogoan zuela, eta baita gogoko ere. Aurrerantzean ez ziren inoiz aldendu.

Anek zuzenbide-ikasketak amaitu zituen baina Martinek beste bide bat hartu zuen eta osaba baten tailerrean mekaniko gisa eman zituen urte batzuk. Mekaniko ikasketarik ez zuen baina oso trebea zen, eta jabearen loba izateak oso erraz jartzen zizkion gauzak. Baina egun batean, osabak tailerra itxi behar izan zuen eta langile guztiak kalean gelditu ziren.

Bitartean, Anek abokatuen langela zabaldu zuen eta hainbat urtez sekulako arrakasta izan zuen. Langela 12 abokatuk osatzen zuten, 13 berarekin, eta kasu inportanteak izatera ere ailegatu ziren. Eta ezkondu ere ezkondu egin ziren Martin eta Ane.

Bizitzako une goxo horietako batean zeuden biak. Martinek ez zuen lanik baina etxeko gizona izatearekin nahikoa zuen, eta pozik zegoen. Ane zen familiako diru-iturri nagusia eta berari ere ez zitzaion batere inporta ardura hori izatea.

Arrakastaz beteriko urteak izan ziren. Abokatuen langelak ospe handia zuen eta kasurik entzutetsuenak enkargatzen zizkieten. Eta euren arteko maitasunaren ondorioz, Magali ere jaio zen urte oparo horietako batean.

Halako goiz batean, albistegiari begira biak, Anek hiltzaile baten berri izan zuen. Eta ez edonolakoa. Biktimak hainbat urtez sotoan giltzaperatzen zituen, bortxatu egiten zituen, eta baten batekin aspertu egiten zenean, modu oso krudelean akabatzen zituen, etxeko lorategian lurperatuz. Zazpi emakume aurkitu zituzten hilik, eta bi bizirik bai, baina sekulako traumarekin. Anek kasu hori nahi zuen. Eta lortu arte ez zuen atsedeen hartu.